

Donostia 2023-02-23

Pertsona Migratuentzako Pastoral Arretak, bidean zehar, Kristorengan ahizpak eta neba-arrebak aurkitzearen poza izan dute, hitzaren entzuteak barrenean durundi egiten dutena konpartituz.

Hasi berria dan Garizuma honetan, Jaunak, aurten ere, Jesusen Heriotzaren eta Berpizkundearen Misterio handia, kristau bizitza pertsonal eta komunitarioaren oinarria, bihotz berritua ospatzeko prestatzeko denbora aproposa ematen digu.

2023ko Garizumarako Frantzisko Aita Santuaren Mezuan, Garizuman, Jesusekin batera mendi garai batera igotzera gonbidatzen gaituzte, Jainkoaren Herri Santuarekin asgesi esperientzia berezi bat bizitzeko (Esfortzua).

Pertsona Migratuen Pastoraltzak urtean bi erretiro ospatzen ditugu Donostiako Elizbarrutian: **Abendualdian eta Garizuman**. Bidean jarri beharra dagoela ikusten dugu, aldapan gora doan bidea, esfortzua, sakrifizioa eta kontzentrazioa eskatzen dituen, mendian barrena egiten den txangoa bezala.

Zuen elkarteetan eta parroketan parte hartzen daberen pertsona migratuak Garizumako erretiroan parte hartzera gonbitea pasa araztea eskatuko genizueke. **Martxoaren 12an** ospatuko dugu Donostiako Elizbarrutiko Seminarioko Klaustroan, **10: 00etatik 17: 00etara (Bazkaria barne)**. Erretiroa Txema Auzmendik (Jesuita) zuzenduko du, **"ZABALAGOTU ZEURE EXOLAREN ESPARRUA"** lelopean. Eguerditik aurrera gurekin izango da bazkarian eta Eukaristia ospakizunean Fernando Prado Gotzaina (cmf) Erretiroa ez da berez helburu bat, baizik eta pasioa eta gurutzea fedez, itxaropenez eta maitasunez bizitzeko prestatzen gaitu, berpiztera iristeko. Neba-arreba maiteok, Espiritu Santuak bultza gaitzala garizuma honetan Jesusekin batera egiten dugun eskaladan, haren jainkozko distira senti dezagun eta, horrela, fedean indarturik, harekin batera jarrai dezagun bidea. Jaso ezazue besarkada maitekor bat,

Leire Atxega Pagola